

## **2. UNIRE SOLDADURA LEHIAKETAREN ARAUAK**

### **1. Lehiaketaren arauak**

**2025ko martxoaren 18an** egingo den I. Unire Soldadura Lehiaketaren antolaketarekin eta garapenarekin zerikusia duten jokabide, jarduera eta zereginei aplikatu beharreko arauak eta irizpideak zehazten dituzte lehiaketaren arauak.

#### **1.1. Aplikazio esparrua**

Arauak lehiaketa osoari aplikatuko zaizkio eta lehiaketaren edozein alderditan edo fasetan parte hartzen duten guztiek bete beharko dituzte arau horiek. Genero maskulinoari buruzko hitzek eta/edo adierazpenek genero femeninoa ere barne hartzen dute, eta alderantziz.

#### **1.2. Oinarrizko printzipioak**

Lehiaketaren garapena burutzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak biltzen ditu lehiaketaren antolakuntzak.

##### **1.1.1. Balioak**

Osotasuna, gardentasuna, ekitatea, lankidetzeta eta berrikuntza dira I. Unire Soldadura Lehiaketaren balio eta oinarri nagusiak.

##### **1.1.2. Lehiaketaren antolaketa**

Ficoba Fundazioa eta Espainiako Soldadura eta Teknologia Elkarteak, CESOL arduratuko dira lehiaketa antolatzeaz.

##### **1.1.3. 2. Unire Soldadura Lehiaketaren Batzorde Antolatzailea**

2. Unire Soldadura Lehiaketaren Batzorde Antolatzailea da Lehiaketaren antolaketaren eta garapenaren arduradun nagusia.

Batzorde antolatzaileak hartuko ditu lehiaketekin loturiko edozein gairi buruzko erabakiak, betiere lehiaketaren arau hauetan agertzen ez badira.

I. Unire Soldadura Lehiaketaren Batzorde Antolatzaileko kideak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua, CESOL elkarteko zuzendari teknikoa izango dena.
- Batzordeburu-ordea, CESOLeko Sail Teknikoko ordezkari bat izango da.
- Idazkari gisa jardungo duen kide bat: Ficoba Fundazioa

#### **1.1.4. Harreman publikoak eta publizitatea**

Lehiaketaren aurretik, bitartean eta ondoren, antolatzaileak arduratuko dira harreman publikoak eta publizitateaz.

Ficoba Fundazioak, erakunde sustatzailea den aldetik, beretzat gordeko ditu lehiaketaren gaineko eskubide guztiak.

## **2. Lehiaketaren antolaketa**

### **2.1. Lehiaketaren antolatzailearen betebeharrak**

#### **2.1.1. Azpiegituren hornidura**

Lehiaketaren antolatzailea arduratuko da modalitate bakoitzeko lehiaketa garatzeko behar diren baliabideak, bitartekoak eta ekipamenduak emateaz.

Lehiaketa modalitate bakoitzaren deskribapen teknikoan ezarritako norbera babesteko tresnak eta ekipoak aurkeztu beharko dituzte Lehiakideek eta epaimahaikideek.

#### **2.1.2. Enpresa babesleak**

Lehiaketa modalitate jakin bat babesten duten enpresek lehiaketa garatzeko behar diren ekipamendu eta azpiegitura guztiak jarriko dituzte, ezarritako babes kontratuaren arabera.

#### **2.1.3. Lehiaketaren programa**

Batzorde antolatzaileak prestatuko du lehiaketaren programa orokorra, bai eta inaugurazioari eta amaierari buruzko jarduera guztiak ere.

#### **2.1.4. Informazioa**

Lehiaketaren antolatzaileak lehiaketa zabaltzeko garrantzitsutzat jotzen dituen alderdien berri emango die komunikabideei.

## **2.2. Izen ematea**

Prestakuntza zentroek eta enpresek lehiaketa hasi aurretik eman beharko dituzte parte hartzaileen izenak, adieraziko den moduan eta epean.

Hala badagokio, desgaitasuna duten lehiakideen berri emango dute, baita haiek parte hartzeko behar diren neurriak jakinarazi ere.

Behar diren akreditazioak egiteko eskatzen den informazio guztia nahitaez bete beharko da.

## **3. Lehiaketaren deskribapen teknikoa**

Lehiaketaren deskribapen teknikoaren dokumentuak zehaztuko ditu eskatutako gaitasuna, proposatutako lanaren irismena eta lehiaketaren ebaluazio irizpideak, bai eta berariazko segurtasun baldintzak ere.

Gainera, deskribapen teknikoak zehaztuko du zer material eta ekipamendu propio ekarri behar dituzten lehiakideek, eta, hala badagokio, zein material edo ekipamendu dauden debekatuak

lehiaketan. Deskribapen teknikoak aukera eman behar die lehiakideei lehiaketan parte hartzeko prestatzeko, lehiaketaren oinarri diren alderdi orokorrak adierazita. Deskribapen teknikoek Lehiaketaren arauak beteko dituzte.

### **3.1. Deskribapen teknikoak egitea**

Lehiaketa modalitate bakoitzaren deskribapen teknikoak kasuan kasuko koordinatzaile teknikoak egingo ditu, enpresa babesleetako edo lotutako produkzio sektoreko adituekin elkarlanean, eta lehiaketaren Batzorde Antolatzaileak onetsiko ditu.

### **3.2. Deskribapen teknikoaren edukia**

Lehiaketaren deskribapen teknikoak honako elementu hauek adieraziko ditu gutxienez:

- Eskatutako gaitasuna eta proposatutako lanaren laburpena.
- Lehiaketa garatzeko jarraibide orokorrak.
- Lehiaketa ebaluatzeko irizpideak.
- Lehiakideek eta epaimahaikoek eman beharreko ekipoak eta materialak.
- Segurtasun eta osasun arloko baldintza espezifikoa.

### **3.3. Azpiegituren zerrenda**

Azpiegituren zerrendan zehaztuko dira lehiaketaren antolatzaileak lehiaketa garatzeko eman behar dituen ekipamenduaren eta materialen ezaugarri teknikoak. Azpiegituren zerrendak jasoko du bai ikuspuntu teknikotik bai antolaketatik behar den materiala, azpiegiturak muntatzeko eta lehiaketa garatzeko behar diren datuak barne.

Azpiegituren zerrendan xehe adierazi behar da zein elementu jarri behar dituen antolatzaileak eta zein diren enpresa babesleen eta/edo laguntzaileen ardurapekoak.

Azpiegituren zerrenda lehiaketaren koordinatzaile teknikoak egingo du, enpresa babesleen eta/edo laguntzaileen laguntzarekin, hala badagokio.

Lehiaketaren koordinatzaileak egiaztatuko du laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dagoen legegian ezarritakoarekin bat datozeela azpiegiturak.

Lehiaketa hasi baino lehen, modalitate bakoitzeko koordinatzaileak egiaztatuko du lehiaketa guneak badituela proben planean adierazitako jarduerak egiteko behar diren elementu guztiak.

### **3.4. Proben plana**

Lehiakideak proposatutako lan praktikoa egin ahal izateko eta horretarako behar diren trebetasunak menderatzen dituela erakusteko zehaztapenak biltzen dituen dokumentua da proben plana. Lan praktikoa 3 modalitate desberdinetan egituratuta egongo da (bakoitzaren soldatze-prozesuaren arabera), eta modu independentean gauzatu eta ebaluatuko dira.

Modalitate bakoitzerako ebaluazio irizpideak eta kalifikazio eskema adieraziko dira.

#### **3.4.1. Proben plana egitea**

Proben plana lehiaketako koordinatzaile teknikoak egingo du, beharrezkoa denean, enpresa babesleetako adituekin elkarlanean, deskribapen teknikoan jasotako zehaztapenen arabera.

Proben planean definitutako modalitateak egiteko, Deskribapen teknikoan jasotako jarraibideak hartuko dira erreferentziatzat.

### **3.4.2. Proben planaren edukia**

Proben planak probak egiteko jarraibide zehatzak jasoko ditu, lehiaketaren Deskribapen teknikoan ezarritako zehaztapenei jarraikiz.

### **3.4.3. Lehiaketaren garapena**

Proben planek aukera eman beharko dute lehiakideek lehiaketaren Deskribapen teknikoan ezarritako gaitasunak eta trebetasunak erakusteko.

Oro har, proben planean zehaztutako lanaren iraupena ez da 2 orduetik gorakoa izango lehiaketak dirauen egunean, 3. modalitatean izan ezik (Elektrodo estaliarekin soldatzea, 111. prozesua) proba 2 ordu eta 30 minutukoa izango da gehienez.

Proben planek kalifikazio eskema zehaztuko dute. Eskema horrek bat etorri beharko du deskripzio teknikoan agertzen diren ebaluazio irizpideekin. Lanak egiten hasi aurretik, modalitate bakoitzari dagozkion zehaztapenak emango zaizkie lehiakideei.

### **3.4.4. Proben planaren konfidentzialtasuna eta hedapena**

Lehiaketako koordinatzaile teknikoak eta proben planak egiten parte hartzen duten laguntzaileek haien konfidentzialtasuna mantentzeko konpromisoa hartuko dute. Proben plana beharreko lehiaketa unean jakinaraziko zaie lehiakideei.

### **3.4.5. Proben planen jabetza intelektual**

Lehiaketaren antolatzailearen jabetzakoa da Proben plana, ezin da lehiaketaren egoitzatik atera eta ezin da inola ere erabili dagokion baimenik gabe.

## **4. Ekipoen eta pertsonen segurtasuna.**

### **4.1. Lehiaketaren segurtasun politika**

Akreditatuta dauden pertsona guztiek bete beharko dituzte segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako betebeharrak.

### **4.2. Erantzukizunak**

Koordinatzaile teknikoak arduratuko dira lehiaketaren eremuan instalazioen eta pertsonen segurtasun baldintzak egiaztatzeaz, lehiaketaren hasieran eta garatzen den bitartean.

## **5. Lehiaketako parte hartzaileak**

### **5.1. Lehiakideak**

Ikasleentzat eta lanean ari diren gazte profesionalentzat da lehiaketa. Ikastetxe edo enpresa bakoitzeko lehiakide bakar batek eman ahal izango du izena. Ikastetxeek edo enpresek izena emateko inprimakia bidaliko dute.

### **5.1.1. Parte hartzeko baldintzak**

Lehiakide gisa parte hartzeko ezinbesteko baldintzak izango dira:

- 2002ko urtarrilaren 1a baino geroago jaioa izatea. Gutxieneko adina: 18 urte.
- Lanean ari den enpresak edo ikasten ari den ikastetxeak hautatua izatea.

#### Ikasleak

- Parte hartzen duten ikasleek **2024/2025 ikasturtean honako heziketa ziklo hauetan matrikulatuta egon behar dute, ahal dela:**
- **Soldadura eta Galdaragintzako Erdi Mailako Heziketa Zikloa.**
- **Eraikuntza Metalikoetako Goi Mailako Heziketa Zikloa**

### **5.1.2. Desgaitasuna duten lehiakideak**

Desgaitasuna duten lehiakideek lehiaketan parte hartu ahal izango dute, duten desgaitasunak ez badie galarazten proben plana zehaztutako denboran egitea.

Horretarako, antolatzaileek lehiakidearen ezaugarrien arabera egokituko dute lanpostua, eta, gainera, lehiaketari zuzenean lotuta ez dauden jarduerak egiten laguntzeko pertsona bat izateko aukera emango die parte hartzaileei.

### **5.1.3. Lehiakidearen eskubideak**

Lehiakideak ekitatez, zintzotasunez eta gardentasunez tratatuko dira une oro lehiaketan zehar, eta, zehazki, honako eskubide hauek izango dituzte:

- Jarraibide argiak eta anbiguotasunik gabeak jasotzeko.
- Espero izateko ezein lehiakidek ez duela bidegabeko laguntzarik edo abantaila ematen dion beste edozein esku hartzerik jasoko.
- Proben plana gainerako lehiakideekin batera ezagutzeko.
- Inolako lehiakideri abantailarik ematen ez dion kalifikazio sistema baten bidez ebaluatua izateko.
- Lehiaketa modalitateko epaimahaikideen eta/edo koordinatzaile teknikoaren aldetik behar duten laguntza izateko, betiere gainerako lehiakideekiko abantailarik ez badago.

### **5.1.4. Irabazleek nazioarteko lehiaketetan parte hartzea**

Lehiaketako parte hartzaile onenen artean, Essen 2025 Azokako nazioarteko soldadura lehiaketan Espainia ordezkatzeko duen estatuko selekzioko kide posibleak hautatuko dira.

## **5.2. Epaimahaia**

Kide anitzeko organoa da, eta lehiaketako modalitateetako proben plan bakoitzean jasotako jarduerak behar bezala burutzeko beharrezkoak diren jarduerak garatzeaz arduratuko da. Epaimahaia da proben kalifikazioaren arduraduna.

### **5.2.1. Epaimahaiaren osaera**

Epaimahaia honako egitura honek osatuko du:

- 2 kidek gainbegiratuko dute proba nola egiten den, eta soldadura muntatzeko eta gauatzeko prozesua gainbegiratuko dute.
- 3 kidek dimentsio-ebaluazioa eta egindako soldaduren ebaluazioa egingo dute.

Epaimahaiak lehiaketa-modalitate guztietako probak ebaluatuko ditu.

Epaimahaikideek epaimahaiburua hautatuko dute. Epaimahaiburu hori bozeramaile gisa arituko da eta zuzendari lana egingo du ebaluazio-prozesuaren plangintzan eta ikuskapenean. Epaimahaikideek ere idazkari bat izendatuko dute, honek epaimahaia eratzeko akta egingo du eta lehiaketaren batzorde antolatzaileari jakinaraziko dio.

Epaimahaiko idazkariak eguneroko aktak egingo ditu eta dokumentuak proben emaitzekin betetzeaz arduratuko da.

### **5.2.2. Epaimahaiaren eginkizunak:**

Epaimahaikideek honako eginkizun hauek izango dituzte:

- a) Egindako jarduerak ebaluatzea, proben planetan ezarritakoaren arabera.
- b) Lehiakideek lehiaketara ekarri behar dituzten erreminten edo ekipoen egokitasuna egiaztatzea.
- c) Lehiaketa parte hartzaile guztientzat berdintasun baldintzetan egingo dela zaintzea.
- d) Ebaluaziorako beharrezkoa denean, neurtzeko tresnak lehiakideenekin kontrastatzea.
- e) Lehiaketa segurtasun eta osasun baldintza egokietan egingo dela zaintzea.
- f) Lehiakideen azken puntuazioen zerrenda egitea.
- g) Lehiaketaren Batzorde Antolatzaileari aholku ematea proposatzen zaizkion gaietan.

### **5.2.3. Epaimahaiburuaren eginkizunak**

Epaimahaiburuak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Parte hartzaileak nor diren eta lehiakide gisa sartu diren egiaztatzea, bai eta lehiaketa modalitaterako ezarritako adinaren baldintza betetzen duten ere.
- b) Lehiakideei honako hauek jakinaraztea lehiaketaren hasieran:
  - Lehiaketaren garapena.
  - Ebaluazio sistema.
  - Jokabide arauak eta, hala badagokio, zigorrak.
  - Lehiaketaren ordutegiak.
  - Egoki iritzitako beste gai batzuk.
- c) Lehiaketaren arauak beteko direla zaintzea.
- d) Lehiaketaren garapenari buruzko erreklamazioak lehen auzialdian ebaztea.

## **6. Lehiaketaren garapena**

### **6.1. Akreditazioa eta identifikazioa lehiaketan**

Pertsona guztiek behar bezala akreditatuta egon behar dute lehiaketako guneetan sartzeko. Lehiaketaren antolatzailea arduratuko da lehiaketaren esparruan eta bertako gune zehatzetan sar daitezkeen pertsona guztien akreditazioak emateaz. Ofizialki horretarako akreditaturik dauden pertsonak bakarrik izango dute sarbidea idazkaritza gunean eta antolatzaileentzat erreserbatutako eremuan.

### **6.2. Lehiaketaren esparruetan sartzea**

Lehiaketaren berriazko esparruetan sar daitezkeen eta behar bezala akreditatuta egon behar duten pertsonak honako hauek dira:

- Lehiakideak.
- Epaimahaikideak.
- Lehiaketaren koordinatzaile teknikoak.
- Antolakuntzako ordezkariak.
- Batzorde Antolatzaileak baimendutako beste pertsona batzuk.

#### **6.2.1. Komunikabideak sartzea.**

Batzorde Antolatzaileak komunikabideei baimena eman ahal izango die lehiaketaren egoitzako gune jakin batzuetara sarbide berezia izateko.

### **6.3. Lan guneak esleitzea**

Lanpostuak zozketa bidez esleituko zaizkie lehiakideei. Zozketa hori, gutxienez, epaimahaiko kide batek gainbegiratuko du.

### **6.3.1. Ohitzeko aldia**

Lehiaketa hasi aurretik, lehiakideek 15 minutu izango dute beren lan guneak prestatzeko eta eskura dituzten baliabideekin ohitzeko.

### **6.3.2. Neurtzeko tresnak egiaztatzea**

Lehiakideek aurkezten dituzten neurtzeko tresnak epaimahaiarenekin kontrastatuko dira, epaimahaiak egoki irizten dionean.

## **6.4. Lehiakideen eskubideak**

Lehiaketan zehar, honako eskubide hauek izango dituzte lehiakideek:

- a) Behar bezala akreditatua izateko lehiaketaren berariazko esparruetan sartzeko.
- b) Epaimahaiaren aldetik lehiaketaren nondik norakoei buruzko informazioa jasotzeko, ordutegia eta ezarritako etenaldiak barne.
- c) Jarduerak egiteko baliabide berberak izateko.
- d) Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, beren ekipamenduak epaimahaikoenekin alderatzeko eskatzeko.
- e) Epaimahaikideek edo koordinatzaile teknikoak arreta emateko, probei edo ebaluazio irizpideei buruz arrazoizko zalantzaren bat sortzen denean.
- f) Baldintza berdinetan ebaluatua izateko.

## **6.5. Lehiakideen betebeharrak**

Lehiakideek uneoro bete beharko dituzte lehiaketaren arauak eta dagokion modalitateko epaimahaiak lehiaketa egunero garatzeko ezarritako jarraibideak, besteak beste, honako betebeharrak kontuan hartuta:

- a) Epaimahaiko kideekin eta lehiaketaren esparruan daudenekin behar den begirunez komunikatu behar dute eta epaimahaiak lehiaketa modalitate bakoitza garatzeko ezarritako arau espezifikoei bat etorritik.
- b) Epaimahaiak lehiaketa garatzeko emandako jarraibideak errespetatuko dituzte. Bereziki kontuan hartuko dira epaimahaiak emandako jarraibideak lehiaketako jardueretan gailu mugikorrek erabiltzeari dagokionez. Lehiaketa egiten den bitartean mugikorrek deskonektatzeko eskatu ahal izango du epaimahaiak.
- c) Lehiaketan erremintak, ekipoak eta tresnak erabiltzean segurtasun arauak aplikatuko dituzte.
- d) Deskribapen teknikoetan zehazten diren eta lehiakideak eman behar dituen tresnak eta ekipoak egoteaz arduratuko dira.
- e) Lehiaketan edo haiekin lotutako ekitaldietan hartutako irudien gaineko eskubide guztiak lagako dituzte, muga geografikorik eta denbora mugarik gabe, Unire Azoka eta Unire Azokako 2. Soldadura Lehiaketa zabaldu eta sustatzeko erabil daitezkeen. Beraz, parte-hartzaileek



onartzen dute beren argazkiak eta grabazioak erabiltzea, aurpegietako irudiak barne, azokari eta lehiari buruzko erreportajeen testuinguruan, telebistan, bai eta ekoizpen pribatuko grabazioetan ere, hedabide inprimatuetan eta linean, eta, bereziki, webguneetan, sare sozialetan eta bideo plataformetan.

## **6.6. Materialak eta ekipamendua**

### **6.6.1. Lehiakideek eraman beharreko elementuak falta izatea**

Lehiakide batek Deskribapen teknikoan zerrendatutako eta lehiakideak eraman beharreko elementuren bat ez badu, lehiakideak koordinatzaile teknikoari jakinarazi beharko dio, eta erabakitzen den epean zuzendu ahal izango du, lehiakideak gastu guztiak bere gain hartuta. Ez da inola ere lehiaketa etengo eta ez da galdutako denbora berreskuratuko.

### **6.6.2. Ordezko materialak**

Lehiakideek ordezko materialak eskatu ahal izango dituzte, emandako jatorrizkoak kaltetuta badaude edo bertan ez badaude. Materialean eragindako kaltea lehiakidearen erantzukizuna bada, epaimahaiak erabakiko du berriz jar daitekeen edo ez, eta horrek zer dakarren proba ebaluatzeari begira.

## **6.7. Komunikazioak eta gorabeherak lehiaketan zehar**

Lehiaketa orduetan, epaimahaiko kideekin edo koordinatzaile teknikoarekin bakarrik komunikatu ahal izango dira lehiakideak. Epaimahaikide ez diren pertsonekin komunikatzeko, Epaimahaiburuak baimendu eman beharko du.

### **6.7.1. Lanaren hasiera eta amaiera jakinaraztea**

Epaimahaiak probak noiz hasi behar diren jakinaraziko die lehiakideei, eta une horretan hasiko da probaren denbora kontatzen.

Lehiakideek lan egiteari utziko diote epaimahaiak hala adierazten duenean, bai proba amaitu delako, bai lehiaketari buruzko argibideren bat emateko.

### **6.7.2. Proben planaren konfidentziasuna**

Lehiakideei probak egiteko ematen zaizkien dokumentuak lehiaketa eremuan egongo dira probak amaitu arte.

### **6.7.3. Gaixotasuna edo istripua**

Lehiakideren bat gaixorik badago edo istripuren bat izan badu, Epaimahaiak erabakiko du lehiakideak galdutako denbora berreskuratzea dezakeen edo lehiaketatik kendu behar duen.

### **6.7.4. Diziiplina neurriak**

Iruzurrezko jokabidea erakusten duten lehiakideek edo lehiaketa behar bezala egiteko modu kaltegarrian jokatzeko dutenek dokumentu honen 10. atalean ezarritako gatazkak konpontzeko prozedura bete beharko dute.

## **6.8. Lehiaketaren amaierako jarduerak**

Tailerrak eta instalazioak ezin dira lehiaketa erabat amaitu baino lehen desegin. Lehiaketa guneak, materialak, tresnak eta ekipamendua barne, garbi eta ordenatuta utzi behar dira.

## **7. Ebaluazioa eta kalifikazio sistema**

Proba deskribapen teknikoetan ezarritakoaren arabera ebaluatuko da. Koordinatzaile teknikoak dagokion erregistroa beteko du.

### **7.1. Ebaluazio irizpideak**

Ebaluazio irizpideekin batera kalifikazio eskema ere aurkeztu beharko da, lehiaketa modalitate bakoitzeko proben planean zehaztu beharko dena.

### **7.2. Kalifikazioa**

Exekuzioa eta soldadura jarduera hori ikuskatzen duten epaimahaiko 2 kideek kalifikatuko dituzte. Kalifikazioak epaimahaiburuari emango zaizkio.

Jarduera horretarako izendatutako epaimahaikideek batera egingo dute dimentsioen eta soldaduren ebaluazioa. Kalifikazioak epaimahaiburuari emango zaizkio.

Modalitate bakoitzerako kalifikazio altuenak dituzten hiru piezak epaimahaikide guztiek batera berrikusiko dituzte irabazlea zehazteko.

Hautagaiak ezin izango dira egon kalifikazio-prozesuan.

### **7.3. Emaitzak**

Lehiaketa-modalitate bakoitzerako, epaimahaiburuak ebaluazioaren emaitzak bidaliko dizkio Batzorde Antolatzaileari, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta eta lehen, bigarren eta hirugarren postuak eslelituta.

#### **7.3.1. Emaitzei buruzko errekurtsioak**

Ebaluazioaren emaitzekin desadostasunik izanez gero, epaimahaiburuari jakinarazi beharko zaio, eta hark, koordinatzaile teknikoarekin lankidetzan eta epaimahaikideen iritzia kontuan hartuta, behin betiko kalifikazioa emango du. Desadostasuna kalkuluari buruzkoa bada eta ez kalifikazioei buruzkoa, epaimahaiburuak edo koordinatzaile teknikoak egiaztatuko du dagozkion eragiketak behar bezala egin direla.

Emaitzekiko desadostasunak jarraitzen badu, Batzorde Antolatzaileari jakinaraziko zaio, eta hark hartuko du azken erabakia.

### **7.3.2. Egindako lanak zaintzea**

Lehiakideek egindako lanak leku seguruan eduki behar dira Batzorde Antolatzaileak lehiaketaren emaitzak onartu arte.

Teknikoki ezinezkoa bada, haien argazkiak atera behar dira, epaimahaiburuak gainbegiratuta. Argazki horiek, artxibatutako ebaluazio dokumentuez gain, leku seguru batean egon behar dute, hasierako ebaluazioa zuzena zen ala ez erabakitzeko beharrezkoak izan baitaitezke.

### **7.3.3. Emaitzak argitaratzea**

Lehiaketa modalitate bakoitzeko emaitza ofizialek parte hartu duten lehiakide guztiak zerrendatuko dituzte, bakoitzak lortutako puntuazioak adierazita, bai eta lehen, bigarren eta hirugarren postuak ere.

Batzorde antolatzaileak posta elektronikoz jakinaraziko dizkie lehiakideei lortutako azken emaitzak.

Emaitza ofizialak lehiaketaren webgunean argitaratuko dira.

## **8. Sariak**

### **8.1. Modalitate bakoitzeko lehenengo postua**

Lehiaketaren modalitate bakoitzaren irabazleari soldadura kareta bat emango zaio.

## **9. Essengo Azokako lehiaketan parte hartzea.**

Parte-hartzaile onenen artean, 2025ko Essen Azokako nazioarteko soldadura-lehiaketan Espainia ordezkatzeko duen estatuko selekzioko kide posibleak hautatuko dira.

## **10. Gatazkak konpontzeko prozedura**

Gatazkaren bat izanez gero, ondoko prozedura hau erabiliko da hura konpontzeko:

### **10.1. Lehiaketaren barruan konpontzea**

Gorabehera lehiaketaren alderdi zehatzei buruzkoa bada, lehiakideak epaimahaiburuari jakinaraziko dio, eta hark, epaimahaiko kideekin elkarlanean, epaia emango du eta lehiakideari jakinaraziko dio. Epaia 2 orduko epean emango da.

### **10.2. Batzorde Antolatzaileak ebaztea**

Gorabehera aurkeztu duen alderdia ez badago ados epaimahaiak emandako epaiarekin, idatziz jakinaraziko dio epaimahaiburuari, eta hark Batzorde Antolatzaileari jakinaraziko dio.

Batzorde Antolatzaileak behin betiko erabakia hartuko du eta lehiakideari eta epaimahaiari jakinaraziko die. Erabaki hori apelaezina izango da.

## **11. Arau haustek eta zigorrak**

### **11.1. Arau hausteen tipifikazioa**

Arau haustek honela sailkatuko dira, lehiaketan duten eraginaren eta pertsonen zori zaien errespetuaren arabera:

- Arau hauste arinak: arau hauste arintzat hartuko dira saiakera mailan hauteman diren baina lehiaketan eraginik izan ez duten jokabideak, eta pertsonen errespetu faltarik ez dakartenak, hala nola baimendu gabeko materiala erabiltzen saiatzea edo beste lehiakide bati kopiatzea, besteak beste.

- Arau hauste larriak: arau hauste larritzat joko dira lehiaketaren garapenean eragina duten jokabideak edo pertsonen errespetu falta dakartenak.

- Oso arau hauste larriak: oso arau hauste larritzat joko dira lehiaketan bertan edo lehiaketan parte hartzen duten pertsonengan eragina izanik lehiaketaren garapena gaitzitzen dutenak.

Hutsegite oso larrien kasuan, epaimahaiak lehiakidea deskalifikatu dezake.